



FUNTSEZKO ELKARTEAK

Funtsezko elkarteak, negozio eredia aurrera eramateko hornitzaileen eta bazkideen artean sortzen den sarea baimentzen du.

• Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?

Aldizkari honen eragile nagusiak hiru pertsona dira: Esti, Mabel eta Luisa. Bakoitzak funtsezko baliabide bat jarri dute:

- **Sormena:** Aldizkariaren diseinuaz arduratuko den lankidea ezaugarri hau izango du, gure kasuan; Luisa izango da erronka honen arduraduna.
- **Ezagutza:** Web gunea sortzeko informatika eta web guneak sortzeari buruzko ezagutzak izan behar dira, kasu honetan; Mabel lankidea arduratuko da.
- **Antolakuntza:** Salmentak eta antolatzeko abilezia beharrezkoa izango da, bezeroei iristeko, eta atal honetaz, Estibaliz lankidea arduratuko da. Honek garraio enpresarekin (Transmenor) komunikatuko da aldizkariaren banaketa antolatzeke.

Gure proiektua funtziona dezan, aipatutako eragileez gain, beste bazkide eta hornitzaile nagusien laguntza behar izan dugu:

1. **HIDES** (higienisten elkarte Euskal Herri mailan): Gure aldizkaria informazio baliagarri izateko, elkarte honen laguntzaz baliatuko gara.
2. **Odontologiako markak** (Colgate, Vitis, Lacer, Oral-B...): Marka hauen enpresak odontologiako materiala saltzen dute eta gurekin lan egitekotan, aldizkarian haien produktuei buruzko publizitatea egin diezaiokegu, eta horrela jende gehiagori haien proposamenak iritsi eta modu horretan ere guk etekinak jasoko dugu.
3. **Garraio enpresa:** Aldizkaria bazkideen postontzira eramateko, garraio enpresa bat (Transmenor) kontratatuko dugu.
4. **Klinikak:** Klinikaren lan postuak eskaini dezakegu gure aldizkarian. Publizitate honen ordez, haiek gure dirua eskainiko digute, eta horrela guk etekin gehiago jaso.

Luisa Betancourt, Mabel Sanchez eta Estibaliz Lasa.

5. **Odontologia eskolak:** Gure aldizkaria ezagunagoa izateko eta horrez gain etekin gehiago jasotzeko odontologiako eskoletara, irakasleei eta ikasleei aldizkaria aurkeztea proposatzen dugu. Gaur egun erabiltzen diren hezkuntza metodologia berriei (Ethazi), aldizkaria hau informazio iturri moduan lagungarria izan daiteke.

• **Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?**

1. **HIDES:** Guretzeko HIDES elkarte garrantzitsua da, iturri honetatik informazio jaso ahal dugulako eta gure bezeroei eman proptzionatu, horrela aldizkarian agertuko diren kasuak benetakoak izango dira eta baliagarria izango da ezagutza ezberdinak izateko.
2. **Odontologiako markak eta klinikak:** Marka ezberdinen publizitatea egiterakoan eta lan postuak eskaintzerakoan gure aldizkaria ezagutuko da eta bien artean diru sarrerak lortuko dugu.
3. **Garraio enpresa:** Gure bezeroak aldizkaria bere etxean izateko kontratatuko den enpresak eramango dio, eta modu honetan, guk ez gara lan astun honetaz arduratuko.
4. **Odontologia eskolak:** Iturri honen bitartez gure aldizkaria ezagunagoa egingo da, horrela odontologia arloan interesa duten pertsonen, gure aldizkariaren existentziaz jabetu eta bezeroak egingo dira.

Gainera erlazio horiekin eta guk egingo dugun lana arazo nagusienak saihestuko dira (webgunearen mantenimendua, bidalketa atzerapenak edo esaera galerak, informazio iturria fidagarriak...).